




BEASAINGO HAURREN HIRIA- 2019-2020
HAUR-KONTSEILUA
1. SAIOA



	GELAN EGIN BEHARREKO 1. DINAMIKA
IKASGELAN LANTZEKO EPEA	2019ko abenduaren 9tik 13ra
HERRIAN XAFLAK UZTEKO EPEALDIA	2019ko abenduan 13tik 22ra.
MATERIALA	Ikastetxe bakoitzean dagozkien zikloetako haur bakoitzarentzako: - EGURREZKO XAFLA BAT - HAURREN HIRIAREN PEGATINA BANA - SOKA
HELBURUA	✓ Herrian Haurren Hiria proiektua ikusaraztea ✓ Haurren adierazpen eskubidea aldarrikatzea ✓ Herriak uler eta ikus dezala zer nahi duten
GELAKO LANA	<ol style="list-style-type: none">1. Banatuko zaizkien enbor xaflen gainean logoaren pegatina erantsi eta atzealdean ikasle bakoitzak egin nahiko lukeen ekimena proposatzen duen idatzi beharko du.2. Herriko ze guneetan egin nahiko lukeen adierazteko, bertara joan eta xafla uztea proposatzen diegu, gurasoekin/tutoreekin batera, herriko txoko batean kokatu, ahal bada argazkia atera eta guri bidali behar digute (Aukera dago proposamen orokorra bada udalerriko edozein txoko aukeratzea).3. Argazkia igotzeko formularioa https://haurrenhiriabeasain.eus/ web gunean egongo da.4. Xaflak, abenduaren 13tik 22ra egongo dira kalean eta 22tik 26ra bitartean udaletxeko plazan jarriko dira, herritarrek eta Olentzero eta Mari Domingik ikus ditzaten ☺. <p>Adibide bat jarri dugu aurkezpenean:</p> <p>Xafla hau plazako kioskoan zintzilikatuko nuke, erdigunean bizi naizelako eta malabarrak egiten ikasi nahiko nukelako. Xafla zintzilikatzean argazkia aterako nuke, ni, xafla bertan zintzilikatzen, eta ondoren argazkia bidaliko nuke.</p> <div style="text-align: center;"><p>MALABARRAK EGITEN IKASI NAHIKO NUKE</p></div>

**HAURRENEKO
SAIOAN EGIN
GENUEN DINAMIKA**

DAR-DAR taldearen antzezpena: hurrek bere hitza entzuna izateko duten eskubidea. Haurren eskubideen azalpena egin zitzaien antzerki bidez.



LOGOA erakutsi. Saioaren helburua aurkeztu. Logoaren inguruan hausnartu eta hurrengo saiorako izena pentsatuta ekartzea eskatu zaie.



Hiru taldeetan banatuko ditugu haurrak.


Borobilean eseri eta norbera aurkezteko jolasa erabili : Nere izena, zenbat urte ditudan, ze ikastetxetik natorren eta nire aisialdian zer egiten dudan (zer dudan gustuko). Bakoitzari bere izena duen **PEGATINA** jarri diegu.



Herri mailan haurrei zuzendurik dagoen kultur, kirol eta aisia eskaintza zein den jasotzeko ideia zaparradarako JOKOA:




- IRUDI EZBERDINAK IZANGO DITUEN POLTSATIK (15 irudi) banan banan irudiak atera eta ideiak botatzen joan gara, bakoitzaren denbora-tartea errespetatuz.
- Dinamizatzaileok ideiak paperean jaso handiz idatzita (DIN-A4 bakoitzean ideia bat)
- Ideiak haurren artean banatu eta MURALEAN zuzenean idatzi edo irudi batez irudikatu dituzte.




3 muralak bateratu eta denei erakutsi zaizkie. Hurrengo saiora eramango ditugu hortik abiatuz proposamenak egiten hasteko.

3X



Muraletan sustriaiak daude irudikatuta. Horren inguruan margotu eta idatzi dute haurrek.



Hurrengo saioan sustrietatik abiatuko gara enbor eta adar berriak sortzeko.